



NORBERA TXOSTENA/2020

NERABEEN

LAGUNTZA ARAKO PROGRAMA





IZENDAPENA

NORBERA, arrisku edota babesgabe egoeran dauden nerabeei eta haien senideei laguntza eskaintzen dien programa.

HELBURU OROKORRA

Nerabezaroa bereziki modu gatazka-tsuan bizi duten eta gizarte bazterketaren arriskuan dauden 13 eta 17 urte bitarteko nerabeen erabateko integrazio soziala bermatzea.

JARDUERAREN LURRALDE ESPARRUA

Gipuzkoako probintzia.

AZPIEGITURA

Esklusiboki, nerabeen eta haien familien eskuhartzeari zuzenduriko zentrua; 1000tik gorako azalera duen.

KOKAPENA

Donostiako Ategorrieta auzoan dago kokatuta. 23 urte baino gehiago daramatza martxan eta inongo gatazkarik gabe, normaltasunez integratua dago bere ingurunean.

IRISGARRITASUNA

Bai Renfeko geltokia bai eta 7 autobus geltoki ezberdin, 300 metro-tako erradio batean.

EKINTZARAKO EGOKITZAPENA

Eremu zabal eta aitzak.

HORNIKUNTZA: BEHARREZKO EKIPAMENDUZ HORNITUTA;

Ekipo informatikoak, ADSL, Izan Fundazioko intraneterako sarrera eta ekintzen gauzatzerako beharrezko den material suntsikor eta ez suntsikor guztia.

ARRETARAKO ORDUTEGIA

Astelehenik - Ostiralerara (urte osoan): 9.00 - 13.00 / 15.00 - 20.30
Ostiraletan 18:30ak arte.

IREKIERA URTEA

1997.

AURKIBIDEA

1.

Sarrera

orria 4

2.

Zentroaren ezaugarriak

orria 8

Aurkezpena – Laburpena

Instalazioak: nerabeak, familiak, kokapen planoa

3.

Giza Baliabideak

orria 12

Aurkezpena – Laburpena

Kanpo/Barne Koordinazioa - Lana Sarean

Etengabeko Formazio Aktibitateak

4.

Esku-Hartze Programa

orria 20

Aurkezpena – Laburpena

Esku hartzeko ildoak

Oinarri metodologikoak: prozesuen lana

Erabiltzaileen profil orokorra

Nerabeen eta familien jardueren balantzea

Nerabeen eta familien asebetze maila


SARRERA

Honako txosten honek 2020. urtean egindako lana azaltzen du.

Norberak 204 nerabe eta haien familiak artatu ditu.
Aurreraxeago zehatzago azalduko den bezala, nerabe
horiexen 378 seniderentzat ere aktibitateak programatu dira.

2020. urtea oso urte gogorra izan da gizarte guztia rentzat eta baita gure Erakundearentzat ere. Covid19-ak sortutako osasun krisiak gure bizitzako oinarri guztiak astindu ditu. Gure erakundea beti egokitu da gizartearen gertatutako aldaketetara eta, zalantzarik gabe, aurrean bizi izan duguna momentu horietako bat izan da.

Norbera programako profesional guztiek oso gogor lan egin dute urtean zehar nerabeei eta haien familiei zerbitzua emateko. Urte zaila izan da, baina uste dugu modu onean gainditu dugula. Itxialdiaren hila bete gogorrenetan (martxoan, apirila eta maiatzan) online komunikazio tresna desberdinak erabili behar izan ditugu gazteei eta haien senideei zerbitzua emateko.



Txosten honen sarreran apirilean, guztiz konfinatuta geunden garaian, Alberto Ruiz de Alegria Norberako zuzendari teknikoak egindako hausnarketa jasotzen dugu:

“Bizitzaren etapa batean (nerabezaroan) non modu naturalean eta kasu gehienetan ez traumatikoan, familiaren babesetik urruntze bate ematen den, eta, horrela, kanpo-munduaren esplorazioari aurre egiten zaion, pareekin ezartzen diren adiskidetasun-harremanen bidez identitate pertsonala eta soziala bilatzeko prozesua garatzen den momentuan, etapa horretan, konfinamenduak markatutako nahitaezko geldialdi horrek prozesu horren etenaldi bat suposatzen du.

Norberako taldea osatzen dugun profesionalak arreta jasotzen duten nerabeekin eta haien gurasoekin etengabe izaten dugun harremanetik abiatuta, us-tekabeko berrogeialdi horri erantzuteko moduetan, eta egoera tirabiratsuen salbuespen batzuk dauden arren (batez ere, antolaketa ezak eta ohitura eta erru-

tinak bertan behera uzteak eraginda), konfinamenduaren aurrean, neska eta mutil gehienak modu positiboan erantzuten ari direla esan dezakegu.


Nerabeek eta haien gurasoek kontatzen digutenaren arabera, konfinamendu honen aurretik izaten ziren ohiko tentsioak eta liskar garrazzak murrizten joan dira. Alde batetik, hobetu egin da beren etxeetan zuten portaera, eta, bestetik, erlaxatu egin dira gurasoei emandako erantzunak eta konfrontazio-moduak, baztuetan okerrak eta desegokiak.

Norberan artatutako nerabe asko ongi portatzen ari dira, ez esatearren, "ondoegi". Familiaren bizitzan eta ordutegien, bazkarien, afarien eta familietan

partekatutako jolas-jardueren errituetan parte hartzen dute (filmak eta telesailak ikustea, mahai-jokoak) Bestalde, beren ikastetxeetatik bidaltzen dizkieten zeregin asko ere egiten ari dira, eta lo egiteko eta esnatzeko denborak nahiko ondo ordenatu dituzte.

Nerabeek Konfinamendu-egoerari ematen ari zaien erantzun hori dela eta, familia-harremanetan eralajazio bat suposatzen ari da,, eta horrek, aldi berean, eragin positiboa du familia-komunikazioaren mailan, hori baita "familia-osasunaren" faktore nagusietako bat.

Baina egoera honetan gehien harritzen gaituena zera da, portaera hobetu duten mutil batzuk konfinamenduaren aurreko



etapan barne-desordena handiko fase batean zeudela, maila kognitiboan zein emozionalean, eta hori ohituren desantolaketan, muga haustean eta familiaren arteko liskar eta inkomunikazioan islatzen zen.

Pentsatzen dugu, batzuetan, estresak eta etengabeko presioak (ikastetxea, lagun-taldea, gurasoen lana, kontsumo eta ordutegi deskontrolatuak) eta jasaten duten dinamika frenetikoa haustea on egiten ari zaiela. Etxean denbora pasatzeak, gurasoekin, anai-arrebeekin, familian hitz egin ahal izateak, serieak elkarrekin ikusteak, bazkaltzeak eta afaltzeak estresak murrizten ditu eta erlaxatu egiten du.

Agian, eta ikasketa bezala, geure buruari galdetu behar diogu ez ote dugun geure bizitza gehiegi bizi gure familiatik



eta geure buruengandik kanpo. Polita da ikustea familia batzuk etsipen positiboarekin bizitzen ari direla begirada etxera itzultzearen esperientzia ”.

Urtero bezala Norberan artatutako nerabeen jatorriko ikastetxe asko ere goraipatu nahi ditugu, bai eta beste agente askoren lankidetzaren ere: gizarte-langileak, prebentzio-teknikariak, kale-hezitzaileak, Harrerako Etxeak, ... Haien koordinazio eta jarraipen lanaren bidez errazten bait digute egiten ari garen betekizuna.

Instituzioen laguntza izateak estaldura formal eta egonkortasuna ematen dio Norbera Programari nabarmendu nahi dugu.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Norbera posible egin duten guztiei. Lehenik eta behin, nerabeei eta haien familiei, beren ahalegin eta inplikazioaz programaren protagonistak dira eta.

Bigarrenik, Notre Dameko lekameei, orain erabiltzen ari garen instalazioak modurik desinteresatuenean utzi dizkigutelako: haiek gabe ezinezkoa izango zatekeen programaren garapena.

Hirugarrenik, sentiberatasuna eta inplikazioa erakutsi dizkiguten instituzioei. Batik bat, Gipuzkoako Foru Aldundia, bere Gizarte Politika Departamenduaren bitartez; Eusko Jaurlaritzako Osasun, Hezkuntza eta Enplegu eta Gizarte Politika Sailak; Udalak, Laboral Kutxa, Kongregazio Erlijiosoak, Erakunde eta pertsona kolaboratzaileak.

Ezin dugu bukatu gure programaren jardunbideetan zuzenean lagundu diguten boluntarioak propio aipatu gabe.



**IKASTEAK EZ DU INOIZ
BURUA NEKATZEN**

LEONARDO DA VINCI

2

ZENTROAREN EZAUGARRIAK

Aurkezpena – Laburpena

Instalazioak:

Nerabeak, familiak, kokapen planoa

ANURKEZPENA

LABURPENA

IZENDAPENA	NORBERA, arrisku edo babesgabetasun egoeran dauden nerabeei laguntzeko Programa.
HELBURU OROKORRA	Nerabezaroa bereziki gatazkatsua daramaten eta bazterketa egoeretara erortzeko arriskuan dauden 13 eta 17 urte arteko nerabeen integrazio sozial osoa erraztea.
JARDUTEKO LURRALDE-ESPARRUA	Gipuzkoa.
AZPIEGITURA	Nerabeekin eta haien familiekin esku-hartze lanak eskulsiban egiteko zentroa, guztira 1000 m2 baino gehiagoko azalera erabilgarria duena.
KOKALEKUA	Donostiako Ategorrieta auzoan. 23 urte luzeko jardunbidean bere inguruan «normaltasunez, istilurik gabe» integratua.
IRISGARRITASUNA	7 autobus-lineek eta Renfeko aldiriek geltokiak dituzte 300 metro eskaseko tartean.
AKTIBITATERAKO EGOKITASUNA	Espazio zabalak eta zeregin desberdinetarako egokituak.
UNITATE TEKNIKOEN BEREIZKETA	Espazio eta ekipo tekniko bereziak Nerabeekin Esku-hartzeetarako eta haien Familiekin Esku-hartzeetarako.
EKIPAMENDUA	Aktibitateak egoki garatu ahal izateko, badago behar adina altzari, ekipo informatiko eta material suntsikor zein ez suntsikor, gehi Internet Fibra eta IZAN Fundazioaren Intranet sare-bideak ere.
ARRETARAKO ORDUTEGIA	Astelehenetik ostiralera, urte osoan. (ostiral arratsaldeetan, 18:30ak arte) Nerabeak: 9.00 - 13.00 / 15.00 - 20.30 Familiak: 9.00 - 13.00 / 15.30 - 20.30
IREKI ZEN URTEA	1997.



INSTALAZIOAK

NERABEAK

Ategorrietan (Donostian), Intxaurrondo kaleko 9an kokaturik, 100 neraberentzako to-
kia daukate. Notre Dame ikastetxea izandako eraikinean egokitu dira, eta arretarako
propio prestatutako gune hauek ditu: topaketa-aretoa jokoekin (billarra, futbolina,
ping-ponga, minikatea, etab...), ataripea duen jolas-patio zabala, taldeka edo ba-
naka elkarriketak egiteko bost areto, areto bat hezitzaileentzat, eskola-laguntzarako
ikaskela bat, sukaldea, bainugelak eta komunak solairuko, saskibaloi kantxa, atari-
pe/terrazza eta dutoak.





3

GIZA BALIABIDEAK

Aurkezpena - Laburpena

Kanpo/Barne koordinazioa
Lana sarean

Etengabeko formazio aktibitateak

ARKEZPENA

LABURPENA

ERAKUNDE ARDURADUNA

35 urte dira IZAN Fundazioak Esku-hartze Psikosozialerako Programak garatzen dituela, eta lortu duen sustraitzea eta jasotzen duen babes soziala direla eta, erreferente bilakatu da Gipuzkoan.

LANTALDEAREN OSAERA

Arreta Zuzeneko Ekipoko zazpi profesionalak eta Laguntzeko Ekipoko lauek osatzen dute lantalde egonkorra. Diziplinarterako ekipo zabala eratzen duten kualifikazio handiko profesionalak dira (psikologoak, pedagogoak, psikopedagogoak, mediku psikiatra eta administraria), etengabeko formazio prozesuan dihardutenak; izan ere, Erakundeak sustatu egiten du formazio-aktibitate ugartan parte har dezaten, bai Erakundeak berak antolatutakoe-tan, bai kanpoko agenteek egindakoetan. Lantaldea elebiduna da (%70ean) eta parekidea genero aldefik. Berrondatezko langileek ekarpen osagarria egiten dute.

ESKARMENTUA

Arrisku egoeran dauden nerabeekin eta haien familiekin esku hartzeko jardunean, lantaldea zaildu eta sendotu egin da 23 urte luzeotan.

MOTIBAZIOA

Bere jardunbide profesionalari hertsiki atxikitako lantaldea da.

UNITATE TEKNIKOETAN EGITURATUA

Nerabeekin Esku Hartzeko Unitatea eta haien Familiekin Esku Hartzeko Unitatea.

KOORDINAZIOA

Unitateek barne-lanean era koordinatuan dihardute, eta beren eginkizuna sarean gauzatzen dute hainbat Institutio eta Erakunderekin: Udalen Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak, ikastetxe eta EPZk, Osasun Zentroak, Harrera Etxeak, Kaleko Hezitzaileak...

Arrisku egoeran dauden nerabeentzako Esku Hartzeko Estatuko beste Programekin ere etengabeko harremanetan egoten gara.

Nerabeak ez ezik haien familiak ere artatzen dituzten profesionalek osatzen dute Norberaren Esku-hartze lantaldea.

Halako lan-banaketa honako arrazoi hauetan oinarritzen da:

- Hezitzailearen eta nerabearen arteko konfidentzialtasun harreman bat ahalbidetza. Funtsezkoa dela uste dugu, konfidentzialtasun harreman bat sortzeko ez ezik, baita, gatazkarik sortuz gero, nerabeak ez hartzeko hezitzailea familiaren aliatutzat.
- Banaketa honek gaztetxoekin zuzenean lan egiten duen prozesuen erritmoa markatzea ahalbidetzen dio hezitzaileari, halako harreman batean familiaren aldetik sor litezkeen ohiko interferentziak pairatu beharrik gabe.
- Nerabearen problematikan eragiteaz gain, beharrezkoa da azterketa eta errebisio prozesu bat sustatzea gurasoengan ere, bai beren jarrerez, bai seme-alabaren-gandik espero dutenaz.

INTERBENTZIO ESPARRUA

LAGUNTZA ESPARRUA



Izan Fundazioa, 2014a ezkerotik
**EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO
LANKIDETZA ERAKUNDEA DA.**

Berdintasunaren aldeko kudeaketa beti egon da Fundazioaren oinarrian.
Horren adibide dira orainarte garatutako hainbat ekintza:

- Programen zuzendaritza emakume baten esku.
- Langileen artean emakume eta gizonezkoen arteko oreka: %54,55 emakumezko eta %45,45 gizonezko.
- Datuak kudeatzeko garaian emakumezkoak eta gizonezkoak bereizten dituen sistema Informatikoa, bakoitzaren ezaugarria aztertzearen, beti ere berdintasunaren ikuspegitik.
- Sexuarengatik diskriminazioa eza erakundearen xede, ikuspegi eta baloreetan.
- Hizkuntzaren eta Irudiaren erabilpen ez sexista.
- Ordainketa politika gardena eta berdina langile guztientzat.

Era berean jazarpen laboraleko, sexualeko eta jazarpen sexista edo sexuagatiko egoeren aurrean prebenitzeko eta jarduteko protokoloa dugu eta baita hizkuntza inklusiboa erabiltzeko gida bat ere.

Hainbat lan saio burutu dira eta gure asmoa parte hartzen jarraitzea da. Gainera gure erakundeak "Komunikazio Taldea"-n parte hartzen du.

Gaur egun 64 entitatek osatzen dugu Bai Sarea.

Azkenik, 2018tik 2022ra bitarteko **gure II Berdintasun Planean** aurreikusitako ekintzak burutu ditugula nabarmendu nahi dugu.



2020ean, "Bai Sarea" n parte hartzen jarraitu dugu, Emakunde Emakumearen Euskal Erakundeak bultzatuta. Parte hartzen duten entitateek Berdintasunerako Erakunde Laguntzaile bereizgarria dute eta sarearen helburua lankidetzarako espazio bat izatea da, berdintasun-planek antolatukundeetan lan-merkatuaren genero-ezberdintasunak murrizteko duten eragina biderkatzeko.



KOORDINAZIOA

BARNEKOA

Gaur egun esku-hartze gehienak arratsaldeetan egiten direla ahaztu gabe ere, esku-hartzeen koordinaziorako, banakako eta taldekako egoeren jarraipenerako, planifikaziorako, eta abarrerako, **Norberak badu barne-bileren sistema bat:**

ARLOEN KOORDINAZIO BILERA. ASTELEHENA (15:30 - 16:30)

Esku-hartze Ekipoko kideek baino ez dute parte hartzen. Nerabeekin eta familiekin esku hartzeko arloen artean informazioa elkarbanatzea du helburu.

KASUEN BANAKAKO JARRAIPEN BILERA. ASTEARTEA (10 - 13)

Esku-hartze Ekipoak parte hartzen du. Bilera bakoitzean Norberako gazteen egoera aztertzen da, eta esku hartzeko banakako planak errebisatu, aldatu, mantendu... egiten dira. Ematen diren komunikazioak eta hartzen diren ebazpenak GHI Gazteen Historial Informatizatua delakoan islatzen dira.

PLANIFIKAZIO BILERA OROKORRA. OSTIRALA (10 - 13)

Esku-hartze eta Laguntza arloetako kide guztiek parte hartzen dute. Bilera honetan, Norbera Programaren ildo nagusiak errebisatzen eta markatzen dira, zailtasun egoerako kasuei dagozkien erabakiak modu kolegiatuan hartzen dira, kanpo erakundeen kolaborazio eskakizunak onetsi edo ezetsi egiten dira, harreman instituzionalen egoeraren jarraipena egiten da... Ematen diren komunikazioak eta hartzen diren ebazpenak bilera honetako «Multi-prozesuen Akta» berezian jasotzen dira.

LAUHILEKO KONTROLA.

Lau hilean behin egiten da, eta honako hau izaten du helburu: Urteko Kudeaketa Planaren eta Helburu Estrategikoen kontrola; lau ordu irauten du eta Zuzendaritza Ekipoak eta Esku-hartze Ekipoak parte hartzen dute.

KANPOKOA LANA SAREAN

2020. urtean, hainbat bilera egin dira Udalen Gizarte Zerbitzuekin, osasunaren profesionalen, ikastetxeetako tutore, orientatzaile, irakasle eta ikasketa-buruekin, eta beste erakunde eta instituzioekin.

Sarean lan egitea ezinbesteko elementua da Norbera Programak bilatzen dituen helburuak erdiesteko, eta euskarri osagarria da nerabeak parte hartzen duen errealitate sozialean: ikastetxean, eskolaz kanpoko jardueretan, lanekoetan, ludikoetan, familiakoetan. Guztira **488 koordinazio** jarduerak burutu dira 2020. urtean hainbat eremuetan:

LANA SAREAN	KOORDINAZIO KOPURUA
IKASTETXEEN EREMUA	233 (%47,5)
EREMU JUDIZIALEAN	46 (%9,4)
OSASUN EREMUA	41 (%8,4)
GIZARTE ZERBITZUEN EREMUA	88 (%18,1)
BABESAREN EREMUA	67 (%13,7)
BESTE EREMUA BATZUEK	13 (%2,9)

BESTEAK BESTE:

- Agintzari
- Aita Larramendi ikastetxea
- Ama Guadalupekoa ikastetxea
- Arantzazuko Ama ikastola
- Asunción Ikastetxea
- Berriztu
- BHI Hernani Institutua
- Uba Urjentzia zentroa
- Txema Finez zentroa
- Musika Kontserbatorioa
- EPI Antiguo
- Ezia
- Elgoibarko Ikastola
- Elizaran Ikastetxea
- EPI Irun
- Epaitegiaren talde psikosoziala
- FP Martutene
- FP Mendibil
- FP Ermua
- FP Bidebieta
- Gautena
- Haurtzaro Ikastola
- Herri Ametsa Ikastetxea
- Hirubide Ikastetxea
- Haurren eta gasteen ospitalea
- DBH Altza
- DBH Bideberri
- CBH Bizarain
- DBH Lauaizeta
- DBH Manteo
- DBH Koldo Mitxelena
- Altza Institutua
- Irisasi
- Kalekka
- La Salle Berrozpe ikastetxea
- Lauka
- Mundaiz Institutua
- Orixe Ikastola
- Ortazarar Ikastetxea
- Osakidetza
- Oteiza Institutua
- Peñaflores Institutua
- Babesten babes pixua
- Matsaria babes pixua
- Eibarko babes pixua
- Andoaingo Haur psikiatria
- Hernaniko Gizarte Zerbitzuak
- Oiartzungo Gizarte Zerbitzuak
- Eibarko Gizarte Zerbitzuak
- Trintxerpeko Gizarte Zerbitzuak
- Donostiako Gizarte Zerbitzuak
- Ermuako Gizarte Zerbitzuak
- Hernaniko Gizarte Zerbitzuak
- Irungo Gizarte Zerbitzuak
- Elgoibarko Gizarte Zerbitzuak
- San Patricio Ikastetxea
- Hondarribiako Gizarte Zerbitzuak
- Errenteriako Gizarte Zerbitzuak
- Villabonako Gizarte Zerbitzuak
- Zumarragako Gizarte Zerbitzuak
- Salesianos ikastetxea
- Santo Tomas Lizeoa Ikastola
- Talaia BHI
- Tokia Alai ikastetxea
- Zaragueta herri eskola
- Zubiri Manteo
- Zurriola Ikastola
- Aita Larramendi Ikastola
- Boxeo Zumaia
- Haurtzaro Ikastola
- Donostiako ospitalea psikiatria
- Foru Aldundia
- Trebatu

ETENGABEKO FORMAZIO

AKTIBITATEAK

IZAN Fundazioak Formazio Plan bat dauka bere enplegatuentzako, eta bertan agertzen ditu bere irizpideak, lehentasunak, plan pertsonalak..

Hona hemen, Arreta Zuzeneko Ekipoa kideek egindako formazioa, laburtuta.

Ikastaroren batean parte hartu duten pertsona desberdinak	8
Ikastaro desberdinen kopurua	19
Formazioan zuzenean inbertitutako orduak	202,2 ordu
Inbertitutako orduak ikastaroko	10,64 ordu
Batez besteko iraupena ikastaroko	3,16 ordu
Orduak batez beste pertsonako	25,28 ordu
Pertsonak batez beste ikastaroko	3,37
Batez besteko balorazioa	8,41

SEXUA KONTUTAN

HARTURIK

	EMAKUMEAK	GIZONAK
Ikastaroren batean parte hartu duten pertsona desberdinak	5	3
Ikastaro desberdinen kopurua	9	19
Formazioan zuzenean inbertitutako orduak	69 ordu	133,2 ordu
Inbertitutako orduak ikastaroko	7,67 ordu	7,01 ordu
Batez besteko iraupena ikastaroko	2,38 ordu	3,81 ordu
Orduak batez beste pertsonako	13,8 ordu	44,4 ordu
Pertsonak batez beste ikastaroko	3,22	1,84
Batez besteko balorazioa	8,41	8,40

EGINDAKO FORMAZIO AKTIBITATEAK DESGLOSATUTA

DATA	GAIA	HEZITZAILE
2020-01-08	Ikuskapen Klinikoa	Juanjo Villegas
2020-02-07	Ikuskapen Klinikoa	Juanjo Villegas
2020-02-12	Ikuskapen Klinikoa	Juanjo Villegas
2020-03-13	Atxikimendu emozionalaren sailkapena	Tatiana Caseda eta Jose Luis Gonzalo Marrodan
2020-04-17	Gurasoen gaitasunen paradigma	Tatiana Caseda
2020-04-23	Ikuskapen Klinikoa (bideokonferentzia)	Juanjo Villegas
2020-05-13	Ikuskapen Klinikoa (bideokonferentzia)	Juanjo Villegas
2020-05-15	Gurasoen trebetasunak	Tatiana Caseda eta Jose Luis Gonzalo Marrodan
2020-06-10	Ikuskapen Klinikoa	Juanjo Villegas
2020-07-06	Interkontsulta	Jose Luis Gonzalo Marrodan eta Rafael Benito Moraga
2020-07-09	Itzulpena eta Kontzientziaketa	Tatiana Caseda eta Jose Luis Gonzalo Marrodan
2020-09-23	Ikuskapen Klinikoa	Juanjo Villegas
2020-10-14	Ikuskapen Klinikoa	Juanjo Villegas
2020-11-11	Traumaterapia, funtzio exekutiboak	Verónica Reyes Casas
2020-12-09	Ikuskapen Klinikoa	Juanjo Villegas
2020-12-11	Traumaterapia-Disoziazioa	Jose Luis Gonzalo Marrodan

4

ESKU-HARTZE PROGRAMA

Aurkezpena – Laburpena

Esku hartzeko ildoak

Oinarri metodologikoak: prozesuen lana

Erabiltzaileen profil orokorra

Nerabeen eta familien
jardueren balantzea

Nerabeen eta familien
asebetze maila

ANURKEZPENA

LABURPENA

GAIARI OSOTASUNEAN HELTZEA

Planteatzen den esku-hartzeak nerabearen errealtateari osotasunean heltzen dio, alde pertsonaletik, familiarretik, sozialetik, akademiko /laboraletik.

NERABEZAROAREN ALDETIKO INTERPRETAZIOA

Etengabeko eboluzioan dauden heinean aztertzen dira nerabeen jokabideak.

DIAGNOSTIKOA / BALORAZIOA

Hasierako diagnostiko baten elaborazioa eta geroko balorazioa ikuspegi bio-psikosozialetik egiten dira; besteak beste, tratu txarrak edota babesgabetasun egoerak detektatu ahal izateko.

BANAKAKO PROZESUA

Banakako arreta, bizi-erritmoak eta uneak errespetatuz, eta helburuen programazio pertsonalizatua.

LOTURA: PROFESIONALA /NERABEA, PROFESIONALA/FAMILIA

Bien arteko harremana ezinbesteko elementua da hezibideko esku-hartzean, estua, hurbila, segurua, errespetuzkoa eta konfiantzazkoa izaki.

TALDE LANA

Aldaketa errazteko erabiltzen da taldea. Ezartzen diren elkarren arteko harremanen analisisa partekatzen delarik, familia bakoitza kokatzen den erari erreparatzen zaio bereziki.

FAMILIA - NERABEA ELKARLANA

Familiaren inplikazioa, esku-hartze prozesu paralelo batetik.

GIRO LAGUNGARRIA

Etxe giroko zentroa, abegikorra, "klinika itxurarik" gabea, nerabearen eta familiaren atxikimendua erraztu eta beraz programetan parte hartzearen aurka agertzeko joerak apaltzen dituen.

BALIABIDE OSAGARRIA

Euskarri osagarria nerabeak parte hartzen duen errealtatearen baitan: ikastetxea, eskolaz kanpoko aktibitateak, lanekoak, ludikoak, familiakoak... Horrexegatik, sarean lan egitea funtsezkoa da helburuak lortzeko.

ESKU HARTZEKO ILDOAK

ESKU HARTZEKO ILDO NAGUSIAK

ESKU-HARTZE MALGU ETA DINAMIKOA: Prozedura eta sistema terapeutiko zurrunk saihesten dira; izan ere, nerabeak eraldaketa-prozesu bete-betean eta bizi-bizian daudenez gero, erantzunak ere behin behinekoak izan behar dute.

NERABEZAROA GAKO DELAKO ESKU-HARTZEA: Ez da ahaztu behar nerabeak direla eta beraz egiten duten guztia zentzu horretan interpretatu behar dela. Haien portaeretan eboluzio-garai horrexetako berezko zailtasun eta kezka agertzen dira. Kontua da helduenak ez diren logikaz diharduten pertsona horiek behatzea eta entzutea.

EZ ETIKETATZEKO PRINTZPIOA: Adingabea pertsona gisa garatzera zuzendutako heziketa batek saihestu behar du haren patologizatzea, "drogazale", "etxekalte", "gatazkatsu" eta halako etiketak itsatsita. Kalifikatzaile bidez estigmatizatzeak askotan lagundu egiten du, hain zuzen, harengandik espero diren jokabideak gara ditzan.

EGONARRIAREN PRINTZPIOA: Nerabearen izaera ebolutiboak itxoiten jakitera garamatza. Adingabeen jarrera batzuek probokazio hutsak dira eta maiz txo transgresioak "inguruabarren arabera" dira, segur aski denboraz desagertuko direnak, behintzat desagoki ez jokatzeko eta "denborak" berez problema batzuk konpontzen uzteko egonarria izan badugu. Hortaz, oso zuhur jokatu behar da pronostikoekin (Funes 1998).

GLOBALTASUNETIKO IKUSPEGIA: Printzipio honek iradokitzen du ez dela eskuhartzea gatazka zehatz baten gainean bideratu behar, batik bat adingabearen problematizazioa ekiditearren. "Nerabearen bizimodu globala optimizatzea ahalbidetzera bideratutako esku-hartzea bilatzen duten programak izaten dira onenak" (Díaz Aguado M^o J. 1998).

ESKU-HARTZE HEZITZAILEA: Nerabearoa balioak eta jarrerak barneratzeko eta portaera-ohiturak ikasteko prozesuaren etapa bat denez gero, funtsezkoa da nerabearen heldutasun prozesua estimulatzea, izan ditzakeen gabeziak berdintzeko aukerak eta baliabideak agerraraztea, bai eta haren jokabidearen eta izaeraren alderdi ezkorraldatzea ere. Funtsezkoa da pertsona bezala hazten eta hezten laguntzen ari zaiola ziurtatzea; hots, neurri guztiek xede hezitzailea, hitzaren zentzu zabalean, badutela konturatzea. Esku-hartze hezitzaile orok honako hiru alderdi nagusi hauek aintzat hartu behar ditu, esku-hartzearen beraren helburuak baitira:

1. Ikasbideak sustatzea.
2. Ikasbideak bereganatzeko pizgarriak eta baliabideak eskaintzea.
3. Idaketarako aurrerapenak arian-arian eskuraraztea.

NERABEAREN ALDAMENEAN LAGUN EGOTEA: Gehienbat nerabearen aldamenean lagun egotea da kontua, hazteko eta heltzeko egiten duen prozesuan laguntzea eta, behar izanez gero, ibilbidea berrorientatzea. Adingabea laguntzen duen profesionalak dinamikoa izan behar du, aldaketak hauteman orduko esku-hartzearen helburuak ordenatu eta hierarkizatu beharko ditu eta. Aldamenean egoteko estrategia eta metodoa lehenetsi behar ditu, eta ez zuzentzailearena egitea. Estilo eta egiteko era honek esku-hartzearen fase eta arlo guztiak kutsatu behar ditu.

PROFESIONALA/NERABEA LOTURA: Bien artean ezartzen den harremanaren kalitatea berebizikoa da esku-hartzerako, eta goian aipatutako laguntza eskaintzea ahalbidetuko du. Hartara, harreman hurbilak, seguruak, errespetuzkoak eta konfiantzazkoak bilatzen dira.

NERABEAREN NORMALIZAZIOA BERE INGURUMENEAN: Ahal dela, nerabea bere ingurumenean mantentzeak sekulako garrantzia du. Distantziamendua eta nerabea bere familiaren, gizartearen, eskolaren, auzoaren, lagunena... girotik aldentzea saihestu behar dira, eta uneoro bere eguneroko normalizazioari eutsi, bai denboran (ordutegiak) bai espazioetan (baliabideak), eskolaratzean edo senide eta lagun arteko harremanetan albait eta gutxien eragiteko.

FAMILIAREN BEREBIKOKO GARRANTZIA: Adingabeei zuzendutako Programa orok familiaren babesa behar du, bera baita garapenerako sozializazio-eragilerik behinena, nerabea hazteko ezinbesteko esparrua, eta prozesuaren jarraipena egiteko plataforma.

DIZIPLINARTEKO LANAREN BEHARRA: Adingabeak laguntzeko eta artatzeko ekipoek diziplinar-teko eta diziplinaziteko lantaldea izan behar dute, kide guztien helburu komunak erdiesteko harreman-egitura eta antolatze-teko eta autodeterminazioz jarduteko gaitasuna azaltzen dutelarik. Izan ere, egoeren konplexuak behartu egiten du diziplina desberdinen elkarlanean aritzera, eta horrek, aldi berean, adingabeak bere gizarteratze-teko prozesu ebolutiboan duen errealtatearen ezagutza eta ulermen hobe-a eta sakonagoa errazten du.

BANAKAKO ARRETA: Helburuen pertsonalizatutako programazio batetik abiatuta, bizi-eritmo eta une desberdinak errespetatzen dira.

TALDEKAKO ESKU-HARTZEA: Aldaketa errazteko fresnatzat erabiltzen da taldea. Ezartzen diren elkarren arteko harremanen analisisa partekatu eta familia bakoitza dagoen tokia behatu eta aztertu egiten da.

OINARRI METODOLOGIKOAK


PROZESUEN LANA

1. DIAGNOSTIKOAN DETEKTATUTAKO BEHARREN ARABERAKO JARDUNBIDEEN ESKAINTZA

Nerabea eta haren familia hasieratik artatzen dira bereiz. Hala errazten da gazte-
txoaren eta artatzen duen profesionalaren arteko lotura pertsonalizatua ezartzea,
bai eta familia konturatzea ere bere inplikazioa beharrezkoa dela abiatzen ari
den prozesuan.

Diagnostikoaren garaian, elkarrizketa indibidualak dira erabiltzen diren baliabide
nagusiak, bai nerabearekikoak bai familiarekikoak.

Hona hemen egoera-diagnostikoan
aztertutako sektoreak erakusten dituen eskema:



Goian aipatutako faktoreen azterketa xehearen arabera baloratzen dugu kasu bakoitzak daukan gatazka-maila, bai eta norainoko esku-hartzea eskatzen duen eta eskuhartze horrexetarako aktibitate-mota egokienak zein diren ere.


Diagnostiko etaparen bukaeran behean azaltzen dena baino kasuistika gehiago aurki dezakegun arren, argi eta garbi bereizi nahi izan ditugu Norberan sarritan agertzen zaizkigun lau egoera-motak.

1.1

Diagnostikoaren etapan zehar frogatzen denean nerabea giro aberasgarrian sozializatzen ari dela, jokabide arriskutsurik ez dagoela eta gaztetxoak oreka psikologikoa duela, eta familiak nerabezaroaren eboluzioan sortzen diren berezko gatazkak egoki kudeatzeko adina baliabide eta gaitasun baduela, Norberatik eskaeraren birdefinizio bat planteatzen da, nerabearen eta haren familiaren indarrak areagotzearekin batera. Alegia, praktikan, dauzkaten baliabideak daukazatelako, gure programan artatu beharrik ez dutela jakinarazten zaie.

Hona hemen diagnostikoan zehar egiten diren aktibitateak:

- ➔ **Diagnostiko-elkarrizketak nerabearekin** (sei eta hamalau bitarte).
- ➔ **Diagnostiko-elkarrizketak familiarekin** (lau eta sei bitarte).
- ➔ **Familia topaketa:** diagnostikoaren itzulera eta eskaeraren birdefinizioa.



1.2 Nahiz eta familiaren aldetik eskastasun egoera batean egon (utzikeria dela, gainbabesa dela, gurasoekiko harremanak oso narriatuak direla, araubideen kudeaketa gorabeheratsua dela...) nerabeak eusteko gaitasun handia duenean, arreta-beharretarako honako baliabide hauek planteatzen dira Norberatik, diagnostikoaren fasean erabilitakoez gain:

- ➔ **Banakako elkarrizketak nerabearekin:** Euskarri modura erabiltzen dira, hartan gaztetxoak beren interesak eta kezak ahoz adieraz ditzake eta. Nerabeak bere familia-inguruan bizi ditzakeen komunikazio-gabeziak berdintzeko euskarri bat izan daiteke, hortaz.
- ➔ **Hezibide taldeak:** Nerabeari bere adineko beste gaztetxoekin osatutako talde batean aritzeko aukera eskaintzen zaio, dituzten kezak eta arazoak elkarrekin parteka ditzaten.
- ➔ **Elkarrizketa terapeutikoak aita-amekin:** Bakoitzaren historia familiarrak aztertzen dira: harremanak, familiaren etapa bateko edo besteko fizioak, familiaren dinamikan eragin dezaketen jokabide errepikatuak, azpisistemen arteko permeabilitatea... Bikote-harremanetan edo triangelukoetan izan litezkeen aliantzak, koalizioak, zailtasunak, eta abar aztertzen dira.
- ➔ **Gurasoen eskola:** Familiako komunikazioa, hezteko ardatzak eta erak, erasokortasunaren kudeaketa, arauak eta mugak ezartzeko nolakotasunak, nerabezeroaren ezaugarriak eta beharrianak... halako gaiak jorratzen dira.
- ➔ **Familia topaketak:** Izaera terapeutikoa dute eta familia nuklearreko kide guztiei zabalik daude: elkarren arteko harremanak, aliantzak, triangelukotzeak, rolak... jorratzen dira.
- ➔ **Familia bat baino gehiagoko taldeak:** Zenbait familiak parte hartzen dute, beren seme-alabekin; izaera terapeutikoa dute eta erkatzea eta ikasketa bikarioa, hots, elkarrekikoa, bideratzen du.

1.3 Zailtasun pertsonalak eta jokabide arriskutsuak garatzen dituztenentzat, edota familiaren babes egokirik ezean bazterkeriatik hurbil dauden inguruetan sozializatzeko ari direnentzat, Norberako esku-hartzeak hainbat eta hainbat aktibitate planteatzen ditu, hezibide aldetikoak ez ezik baita terapeutikoak ere, nerabearentzat ez ezik baita familiarentzat ere.

- ➔ **Banakako elkarrizketak nerabearekin:** Izaera terapeutikoa dute eta garatutako jokabideen atzean dauden arrazoiak argitzen laguntzen dute, zeren eta, jokabideok sorrarazten dituzten bizipenei bereziki erreparatzeaz gain, gabezia emozionalak sublimatzeko duten garrantzia ere aintzat hartzen baitute.
- ➔ **Talde terapeutikoak:** Hemengoari eta oraingoari loturiko bizipenak lantzen dira, eta epe labur eta ertaineko helburuak seinatzen dira, taldearen eragina eta ikasketa bikarioa gaztetxo partaide bakoitzaren egunerokotik hara-gokoan ere txerta daitezen.

- **Elkarriketa terapeutikoak aita-amekin:** Aurreko atalean esandako helburu berberak dituztenak.
- **Familiei zuzendutako talde terapeutikoak:** Talde horietan gauzatzen den terapiarako, beharrezkoa izaten da zenbait familia beren gatazkak besteen aurrean eta ondoan elkarri pentsatzeko eta kontatzeko prest egotea, familiaren baitan edo afektiboki garapen pertsonala, bikotearekikoa edo beren seme-alabekikoa oztopatzen duten arazoak partekatu behar dituzte eta. Abiarazten den prozesu emozionala handitu egiten da lan terapeutikoa gauzatu ahala eta konfiantza areagotu ahala, sentsazio eta sentimendu penagarriak (batbederarenak eta besteenak) jakinarazten direlarik; hain zuzen sentimendu horiek dira aztertu eta elaboratu beharrekoak.
- **Familia topaketak:** Aurreko atalean esandako helburu berberak dituztenak.
- **Talde mistoak:** Aurreko atalean esandako helburu berberak dituztenak.
- **Aisialdiko aktibitateak:** Gabeziei eta nerabeak bere inguruan dituen dinamikei alternatiba baikorra izateko saioak.
- **Eskola-Laguntzako ikasgela:** Ikasketen zailtasunetan laguntzeko eta osatzeko eskaintza.


2. BEHARRIZANEN ARABERAKO ARRETA-EREDUA

Esan beharra dago atal honetako hasieran aipatzen diren aktibitate multzoak ez direla noizbehinka edo haien artean harremanik gabe egindakoak, finkoak eta elkarrekikoak baizik.

Aktibitateen errepikapen jarraituak, betiere kasu bakoitzeko astean hiru saioko (bi, nerabeari zuzenduta; bestea, gurasoei) **gutxieneko** programazio maila bate-tik abiatuta, behar-beharrezko elementua izaten da bilatzen diren aldaketak eta garapenak sustatuko badira. Halatan, Norberara arreta bila datozen nerabe zein familia orok banakako eta taldekako elkarriketa kopuru handia (terapeutikoak izan, euskarrikoak izan) egiteko aukera izango dute, diseinatutako prozesuei indarra eta jarraitasuna ematen baitiete.

Beste alde batetik, gazteekin alderdi klinikotik ez ezik testuinguru ludiko batetik ere esku hartu ahal izateko aukerak nerabearen eta artatzen duen profesionalaren artean lotura sendoa ezartzea bideratzen du. Norberako instalazioek ere laguntzen dute helburu hori lortzen, gazteek erabiltzeko joko-areto handia, kanpoko jolastokia eta baliabide informatikoak baitituzte.

Nolabait, eta kasu bakoitzaren beharrianen arabera, esku-hartzea txertatuko da, gehiago edo gutxiago, hurrengo irudiaren sektore-bidegurutzearen baitan:



Lan klinikoaren eta harreman ludikoaren, banakako eta taldekako arretaren, ikasketaren eta bulegoaren arteko konbinaketa honek aipatutako aktibitate guztien eta batbederaren aberastasuna biderkatu egiten du, denak elkarren osagarri paratu eta indartzen dituen heinean.

3. NORBERA METODOLOGIAREN BALIO ERANTSIAK

Norbera programak nerabeei eta familiei ez ezik instituzioei ere eskaintzen dien metodologiaren balio batzuk identifikatzeko tenorean, honako hauek azpimarrazteko modukoak iruditzen zaizkigu:

- ➔ Aspaldiko urteotan, Norberak euskarritzko erakundearena egin du sarritan, instituzioek beste zenbait erakunderen esku uzten zutelarik nerabe bat babesgabetasun edota tratu txar egoera batean ote zegoen ikertzeko lana.

Gauzatzen ari zen ikerketa-prozesu harekin paraleloan, nerabe askok eta beren familiek arreta jaso dute gure zentroan; halakoetan, kasuaren larria diagnostikatzeko prozesu, zenbaitetan luze hartan, ekidin izan dugu “abandonatuak” geratzea.

Halako tarteetan, bada, gure programak dinamika jarraitu batean elkar eragiteko aukera eman izan die gaztetxoari eta haren familiari, gure zentroko profesionalekin ez ezik, baita beste zenbait gaztetxo eta familiarekin ere.

Kasu askotan, esku-hartze horrek galarazi izan du gazte horien egoera larriagotzea; beste batzuetan, aldiz, arriskua urritzeko eta gurasoen babes-gaitasunak areagotzeko abaguneari ekin zaio.

- ➔ Eskaintako esku-hartzearen maiztasun eta sakontasun handiak ahalbidetzen du nerabeak dituen une “egokiak” –hots, gaztetxoak bere burua kuestionatzeko irekiago dagoen, ohartasun handiagoa duen uneak-aprobatzea. Ez dugu ahaztu behar gazte asko, profesional baten aurrean eseri orduko, uzkur samar agertzen direla, eta zenbaitetan zuzenean argi

eta garbi azaltzen dizkiotela beren eragozpenak eta ukoak; horrek, jakina, laguntzeko lanak, terapeutikoak, edo prozesuen garapenak, oztopa ditzake.

Familiaren aldetik ere, prozesu paralelo bat seinala dezakegu. Norbera-ra datozkigun familia askok okerreko ideia bat adierazi ohi dute: gatazka seme-alabarengan baizik ez datzala, eta gurasoek haien jarrera desbideratuak pairatu besterik ez dutela egiten. Beste batzuek nolabaiteko erru sentimendu bat ere badute, eta defentsiban agertzen dira artatuko dituen profesionalaren aurrean, hark "epaituko" dituelakoan edo.

Arreta jarraituari esker, bada, hasierako uzurtasun horiek gaintitzen edota gurasoak seme-alaben hezibideari zein konfrontazioari buruzko zenbait jarrera kuestionatzen hasten dira; orduan, artatzen dituen profesionalarekiko loturaren kalitatea ere hobetu egiten da.

- Espazioaren garrantzia arreta-gunean: Horixe da Norbera programak eskaintzen duen beste balio erantsi bat: bere azpiegituren egokitasuna.

Gure egoitzak, esku-hartze terapeutikoak egoki egiteko behar adina espazio eta baliabide dituen arren (familien eta nerabeen arretarako espazio bananduak, taldeetarako aretoak, bulegoak, aldebakarreko ispilua, grabazio sistema, proiektioetarako materialak eta bestelako ekipamendu teknikoak...), topaleku eta aisialdirako toki baten estetika dauka.

"Kutsu klinikorik" gabeko topaketa naturaletan elkar eragiteko espazio zabalak dituzte gazteek, ohikoak zaizkien inguru ludiko baten antzerakoak. Billar-mahaia, futbolina, dardo jokoa, bideo-kontsola, ping-pong mahaia, eskola-laguntzarako ikasgela, sukalde eta jangela, toka jokoa, aisialdirako mahaiak, barbakoa uda sasoian, bolatokia eta petanka... horiek guztiak lagungarri dira nerabeak beren artean aritzeko, betiere profesionalen tutoretzapean.

- Halaber, eta ezbaierik gabe, gure erakundearen lehiakortasunaren beste abantailatzat eta erantsitako beste balioztat jo dezakegu nerabe eta familia bakoitzaren beharrezanez egokitutako taldekako esku-hartzea ere.

Gure inguruan nerabeei noizbehinkakoa ez baina jarraitua eta estrukturatua den talde-espazio bakarra Norbera Programarena dela uste dugu.

Nerabeei zuzendutako taldeak, terapeutikoak izan, laguntzakoak izan, primerako aukera izaten dira gainerako kideen erreferentzia-esparrura partaide bakoitzaren eutsitasunak, elkartasunak, inteligentziak eta gizabideak izugarri zabaltzeko; era berean, komunikazio eredu berrien garapena bideratzen dute.

Familiei zuzendutako taldeek errazten dute familiok arazoak bizi dituzten isolamendua eta bakardadea (askotan bakarrik egon gabeko bakardadea dena) gainti ditzaten; aldi berean, gainerako partaideekin hainbat erantzun eman diezaiekete noizten ari diren egoerei.

GENK EGINDAKO DIAGNOSTIKO-TRESNAK

Diagnostiko fasean egindako balorazioa “nerabearen estandarra” eta “famiaren estandarra” izeneko bi fitxa bereizietan islatzen da. Nerabearen zein famiaren alderdi sendoak nahiz gabeziak jasotzea dute helburu. Sei hilean behin fitxak eguneratu egiten dira, interesatuekin batera baloratutako atal bakoitzean emandako eboluzioa baloratze aldera, eguneratu ere.

Nerabearen estandarren fitxa

Valoración (1/2)				Valoración (2/2)			
Fecha apertura: 09-03-2011				Fechas de Valoración			
				Fase I: 29-03-2011	Fase II: 11-07-2011	Atalari:	
Area Personal	Responsabilización de la propia conducta	6	6				
	Capacidad de autoevaluación y autorreflexión	6	7				
	Capac. de conocer/ expresar sentimientos	6	7				
	Capacidad empática	5	5				
	Tolerancia a la frustración	7	6				
	Autoestima emocional	7	7				
	Autoestima física	7	7				
	Robos de dinero y/o objetos	6	7				
	Consumo de Alcohol	6	7				
	Consumo de Marihuana	6	5				
Comportamiento de riesgo	Consumo de drogas de síntesis	6	6				
	Otros consumos	6	6				
	Trájes con drogas	6	6				
	Trájes con armas	6	6				
	Conducta temeraria o irresponsable	6	6				
	Conducta sexual de riesgo	6	6				
	Comportamiento violento hacia personas	6	6				
	Comportamiento violento hacia objetos	6	6				
	Presencia de Psicopatología						
	Cuál:						
Area Social	Está atendido						
	Adherencia al tratamiento						
	Aceptación de la enfermedad						
	Evolución de la sintomatología						
	Capacidad de definir cuál es el "problema"	7	6				
	Capacidad de imaginar posibles alternativas	6	6				
	Capacidad de prever las consecuencias	6	6				
	Capacidad de trazarse objetivos	5	7				
	Capacidad de ponerse en el lugar del otro (vincular el ego-centrismo infantil)	5	5				
	Higiene personal adecuada	6	6				
Area Familiar	Alimentación adecuada	5	7				
	Descanso adecuado	6	7				
	Utilización positiva del Tl.	6	6				
	Comparte su tiempo libre con amigos	7	7				
	Uso adecuado de la TV	7	6				
	Uso adecuado del ordenador/internet	6	6				
	Uso adecuado del Teléfono fijo y móvil	7	7				
	Ausencia de aislamiento social	7	7				
	Existencia de grupo de referencia positivo	6	7				
	Existencia de amigo/a íntimo-a	6	6				
Area Escolar	Ausencia de comportamiento antisocial	6	6				
	Habilidad social	6	7				
	Resistencia ante la presión grupal	7	7				
	Relaciones afectivas acordes a la edad	6	7				
	Autoestima social	6	7				
	Autoestima familiar						
	Participa de los hábitos familiares						
	Desocupación/idescolarización						
	Asistencia al centro	4	6				
	Buen comport. en el aula (ausencia expulsiones)	5	6				
Area Escolar	Ausencia de violencia física hacia compañeros	5	6				
	Ausencia de violencia verbal hacia compañeros	5	6				
	Ausencia de violencia física hacia Profesores	5	6				
	Ausencia de violencia verbal hacia Profesores	5	6				
	Rendimiento escolar	2	6				
	Existencia de hábitos de estudio	5	6				
	Autoestima escolar	5	6				
	Manual de Categorías C						
	1						
	2						
3							
4							
5							
6							
7							
8							
9							
10							

Valoración (1/2)				Valoración (2/2)				
Area Familiar	Ausencia de fugas de casa	6	6					
	Cumplimiento normas/límites	5	7					
	Capacidad para negociar normas/límites	4	6					
	Cumplimiento normas/límites negociados	5	7					
	Comunicación padre-hija	4	5					
	Relación padre-hija	4	7					
	Comunicación madre-hija	6	7					
	Relación madre-hija	4	7					
	Comunicación nueva pareja padre/madre							
	Relación nueva pareja padre/madre							
Area Escolar	Comunicación con hermano-as	2	5					
	Relación con hermano-as	2	5					
	Ausencia de comport. violentos verbales	4	6					
	Ausencia de comport. violentos físicos	7	7					
	Autoestima familiar							
	Participa de los hábitos familiares							
	Desocupación/idescolarización							
	Asistencia al centro	4	6					
	Buen comport. en el aula (ausencia expulsiones)	5	6					
	Ausencia de violencia física hacia compañeros	5	6					
Area Escolar	Ausencia de violencia verbal hacia compañeros	5	6					
	Ausencia de violencia física hacia Profesores	5	6					
	Ausencia de violencia verbal hacia Profesores	5	6					
	Rendimiento escolar	2	6					
	Existencia de hábitos de estudio	5	6					
	Autoestima escolar	5	6					
	Observaciones:							
	Va a empezar en un equipo de fútbol.							
	Ha mejorado mucho a nivel escolar y respecto a los consumos de cannabis.							

Familiaren estandarren fitxa

Valorián (12)

Valorián (12)

Fecha apertura: 07-12-2018

	FI	FE	FB	FA
Normas regidas con esta adolescente	5	6		
son temas: se hacen cumplir	3	6		
son consistentes: se mantienen en el tiempo	5	6		
Existen consecuencias	3	6		
Intermedios: transgresión/consecuencia	4	6		
proporcionales: acordes con la transgresión	5	6		
LA NORMA ES ADECUADA	5	4		
Es la madre biológica	☒	☒	☐	☐
Expresa afecto a su hijo	8	6		
Demuestra afecto a su hijo	7	6		
Relaciones afines acordes a la edad	2	6		
Hay confirmaciones: vibraciones	6	6		
Ausencia de desconfianzas	3	3		
Se siente respetada por su hijo	2	3		
Ausencia de violencia en la relación	4	5		
BUENA RELACIÓN AFECTIVA	3	6		
Es el padre biológico	☒	☒	☐	☐
Expresa afecto a su hijo	8	6		
Demuestra afecto a su hijo	7	7		
Relaciones afines acordes a la edad	4	5		
Hay confirmaciones: vibraciones	5	6		
Ausencia de desconfianzas	3	3		
Se siente respetada por su hijo	5	6		
Ausencia de violencia en la relación	5	6		
BUENA RELACIÓN AFECTIVA	4	6		

	FI	FE	FB	FA
Es la madre o padre biológico	☐	☐	☐	☐
Expresa afecto a su hijo				
Demuestra afecto a su hijo				
Relaciones afines acordes a la edad				
Hay confirmaciones: vibraciones				
Ausencia de desconfianzas				
Se siente respetada por su hijo				
Ausencia de violencia en la relación				
BUENA RELACIÓN AFECTIVA				
Asistentes en la educación con su hijo				
No desisten en presencia de su hijo	4	4		
No se desconfía en presencia de su hijo	4	4		
BUENA RELACIÓN	4	6		
Revalorización de su hijo	6	6		
Revalorización de algún otro hijo	6	5		
BUENA RELACIÓN	5	5		
Devotan tiempo a su adolescente				
Comparten actividades				
Tiempo familiar				
Responsabilidad ante la situación				
Cumplimiento necesidades físicas				
Cumplimiento necesidades cognitivas				
Cumplimiento necesidades emocionales				
Cumplimiento necesidades sociales				

Manual de Categorías v.2

5
2
3
Muy mal evaluado

4
5
Mal evaluado

6
7
Adecuado

8
9
Muy adecuado

ERABILIA OHI DIREN BESTE DIAGNOSTIKO-FROGA BATZUK

NERABEENTZAKO INBENTARIO KLINIKOA (MACI)

Millionen nerabeentzako inbentario klinikoa oso baliagarria zaigu ebaluatzeko; hots, nerabeen nortasuna aztertzeko, egon litezkeen nahasmenduak defektatzeko eta batez ere frogak islatzen duen informazioaz jabetzeko, nerabe bakoitzaren bizimoduaren berri zehazki ematen du eta: nortasun zantzuak, joerak portaeretan, berdinekiko eta jatorrizko familiarekiko harremanak, sendogarriak bilatzeko orientazioa... Hau da, babesteko edota tratatzeko plan pertsonalizatua egiten laguntzen digu, betiere nerabeen garapena bideratu eta patologiak haztea saihestearren.

Estandar bietan esleitutako puntuazioak oinarri hartuta, bereizitako hiru profiletan sailkatzen dira Norberako gaztetxoak.

INFORME FICTICIO

ARAZO PSIKIATRIKOAK DITUZTEN NERABEENTZAKO ARRETA BEPEZIA

Nerabearen diagnostikoa egitean sintomatologia psikiatrikoaren indiziorik agertuz gero, edo Diagnostikoaren Hasieraren ondorengo arreta-faseetan aurkituz gero, jarraitu beharreko prozesua honako hau da:

- Premiazko arreta psikiatrikoa behar dela baloratzen bada, familiari orientazioa ematen zaio Haur Psikiatriako larrialdi-unitatera joan dadin. Gerora, delako unitatearekin harremanetan jartzen gara, egindako balorazioaren eta tratamenduaren berri izateko.
- Sintomatologia psikiatrikoaren indiziorik agertu bai baina premiazko eskuhartzea ez duela eskatzen baloratzen bada, kasuen banakako aste-roko bileran aurkezten da bildutako informazioa, eta bertan baloratzen da nerabeak Norberako psikiatrak artatzea komeni den ala ez.
- Esku hartzeko ildoak birbideratzea beharrezkotzat jotzen bada, hainbat profesionalekin aspalditik egiten ari diren kasuen kanpo-ikuskapeneko hileroko saioetara lekualdatuko da.




ERABILTZAILLEEN


PROFIL OROKORRA

2020an artatutako nerabeen ezaugarriak jasotzeko erabili ditugun fitxa-eredu desberdinetako erantzunetan oinarritu da segidan aurkezten dugun profil hau, haien ezaugarri orokorren eta hasieran aurkezten zituzten arazoen berri emango digulakoan.

SEXUA




BIZILEKUA




NORBERA PROGRAMAN ZEIN ADINAREKIN HASTEN DIREN

BATAZ BESTE:
15,6 URTEKO ADINA DUTE




ADINA

→ NORBERA PROGRAMA NOLA EZAGUTU DUTE:



→ AZALDUTAKO ARRAZOIAK



Nerabeak eta familiak azaldutako arrazoiak, Norberarekin harremanetan hasteko, honako hauek dira:





FAMILIAK "FOKOA" EDO ARDURA NORI EGOZTEN DIOTEN:



>%100 erantzun anitzaren bitartez.



%96,4 seme alaba biologikoak dira, eta %3,6a adoptatutakoak.





GURASOEN EGOERA ZIBILA:



Hala ere %98,2ak jarrera irekia erakusten du eta %1,8ak itxia.



ZAINTZA - KUSTODIA:



Nerabeen %46,8a nahi dutelako iristen dira Norberara eta %53,2a behartuta.



NERABEEN BALANTZEA (2020-01-01 / 2020-12-31)

2020. urtea hasi zenean, Programan 107 nerabe zeuden. Urtean zehar beste 97 sarrera izan dira; beraz, artatutako nerabeen kopuru osoa, 204 lagunekoa izan da.

NERABEAK
2020KO HASIERA

107

SARRERAK

97

GUZTIRA

204

Honako eboluzio hau izan dute:

NERABEAK GUZTIRA 2020KO ABENDUAREN 31EAN	91
BAJA GUZTIRAK	58
ALTA GUZTIRAK	55
• ASEBETETZEKO MODUKO HOBKUNTZAZ	41 (%74,6)
• NOLABAITEKO HOBKUNTZAZ	10 (%18,2)
• HOBKUNTZARIK GABEKO ALTAK	4 (%7,2)

Alten balorazioa lantaldearen bileraren baitan egiten da; hau da, Kasuen Banakako Jarraipen Bileran, non nerabearengan ez ezik haren familiarengan hautemandako hobekuntzak aztertzen diren, hasierako egoeratik abiatuta.

HOBKUNTZARIK GABEKO ALTAK: Horrelakotzat jotzen dira eskakizuna bultzatu zuten alderdietan nerabearengan inolako hobekuntzarik eman ez denean. Hobekuntzarik gabeko alta gehienak Programan denbora gutxi egondakoenak dira; alegia, aurkezten duten egoeran esku-hartzerik egin baino lehen bertan behera uzten dutenenak.

HOBKUNTZAZKO ALTAK: Norberan esku-hartze fasearen ondoren egoera hobetu dutenenak.en Norbera.

> **Nolabaiteko hobekuntza:** Horrelakotzat baloratzen dira arrisku-jokabideak urritu diren kasuen altak, batik bat eskakizuna sorrazki zuten arriskuei buruzkoak.

> **Asebetetzeko moduko hobekuntza:** Jokabide arriskutsuen urritzea ez ezik, familian, arlo pertsonalean, eskolan eta oro har nerabearen errealitatearen beste alderdietan ere hobekuntzak nabarmen eman diren kasuen altak dira...

→ JARDUEREN BALANTZEA: (NERABEAK)

2020ean, gazteentzako 4.704 jarduera programatu ditugu.

Horietatik:

%65,3 banakakoak

%34,7 taldekakoak

BANAKAKO ELKARRIZKETAN	147
FASE ALDAKETAKO FAMILIA TOPAKETAN	66
DESBLOKEATZEKO FAMILIA TOPAKETAN	85
BAT-BATEKO PRESENTZIAN	8
G1 TALDEAN	37
G2 TALDEAN	41
G3 TALDEAN	20
FAMILIANITZEKO TALDEAN	33
TALDE TEMATIKOAN	12
IKASGELETAN	27
JANGELAN	37
ASIALDIAN	26

→ JARDUEREN BALANTZEA: (FAMILIAK)

Familientzako, 2.643 jarduera programatu ditugu.

Horietatik:

%84,5 banakakoak

%15,5 taldekakoak

BANAKAKO ELKARRIZKETAN	178
FASE ALDAKETAKO FAMILIA TOPAKETAN	65
DESBLOKEATZEKO FAMILIA TOPAKETAN	92
ERREBISIO FASEAN	18
G1 TALDEAN	12
G2 TALDEAN	41
G3 TALDEAN	32
FAMILIANITZEKO TALDEAN	32

→ Urtero bezala senide asko artatu ditugu Norbera programan.
Hain zuzen ere :

378

177 Ama (%46.83),

128 Aita (%33.86),

24 Anaia lehena (%6.35),

10 Arreba-ahizpa lehena (%2.65),

9 Amona (%2.38),

7 Aitaorde (%1.85),

5 Amaorde (%1.32),

4 Anaia bigarrena (%1.06),

4 ahizpa bigarrena (%1.06),

2 Izeba (%0.53),

2 Aitona (%0.53),

2 Hezitzaile (%0.53),

1 Anaia hirugarrena (%0.26),

1 Bikotea (emakumea) (%0.26),


1 Bikotea (gizona) (%0.26),

1 Anaia bosgarrena (%0.26)


NERABEEN ETA FAMILIEN ASEBETETZE MAILA

Ezarritako prozedurei jarraiki, 2020ko urrian nerabeen eta haien senideen asebetetze maila berriro neurtzeari ekin zitzaion.

GAZTEAK



FAMILIAK



OHARRAK

Handwriting practice lines consisting of multiple horizontal blue lines for tracing and writing practice.

OHARRAK

Handwriting practice lines consisting of 20 horizontal blue lines.